

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Arabako Biltzar Nagusiek
eskatutako Lan Bereziak**

**Trabajos Especiales a petición de
las Juntas Generales de Álava**

1999



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA..... 4

I.	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen hainbat gastu eta dirulaguntzaren azterketa (1996-1999)	5
	Alderdi Orokorrak.....	5
	Ondorioak	7
II.	Ariznabarrako adinduen zainketarako zentroaren ustiapenaren zerbitzu publikoa emakida erregimenean kudeatzeko kontratua	9
	Alderdi Orokorrak.....	9
	Ondorioak	10
III.	Arabako Foru Aldundiak 1997 eta 1999 artean ureztatzeko lanetarako emandako dirulaguntzak	11
	Alderdi orokorrak.....	11
	Ondorioak	15
IV.	Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Deportivo Alaves eta Saski Baskonia kirol elkarte anonimoei 1999an emandako dirulaguntzak	16
	Alderdi Orokorrak.....	16
	Conclusiones	18
V.	Arabako Foru Aldundiak Ebroko Parkearen instalazioak Lantarongo Udalari lagatzeko kontratua eta horrek Ingurumen Heziketa Sustatzeko Fundazioari lagatzekoa	19
	Alderdi Orokorrak.....	19
	Ondorioak	20
VI.	Arabako Foru Aldundiak Arabako ehiza-barrutien elkartarekin izenpetutako hitzarmena eta 1999an emandako dirulaguntzak.....	21
	Alderdi Orokorrak.....	21
	Ondorioak	22

INTRODUCCIÓN..... 23

I.	Análisis de determinados gastos y subvenciones del Instituto Foral de Bienestar Social para el período 1996-1999.....	24
	Aspectos generales	24
	Conclusiones	26
II.	Contrato para la gestión del servicio público de explotación del Centro de Atención a Personas Mayores en Ariznavarra, en régimen de concesión	28
	Aspectos generales	28
	Conclusiones	29



III.	Subvenciones a Regadíos concedidas por la Diputación Foral de Álava en el periodo 1997-1999	30
	Aspectos generales	30
	Conclusiones	34
IV.	Subvenciones concedidas al Deportivo Alavés, SAD y Saski Baskonia, SAD por la Diputación Foral de Álava, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y el Gobierno Vasco en el ejercicio 1999	35
	Aspectos generales	35
	Conclusiones	37
V.	Contrato de cesión de las instalaciones del Parque del Ebro por la Diputación Foral de Álava al Ayuntamiento de Lantarón y por éste a la Fundación para el Fomento de la Educación Ambiental.....	38
	Aspectos generales	38
	Conclusiones	39
VI.	Convenio y subvenciones concedidas por la Diputación Foral de Álava a la Asociación de Cotos de Caza de Álava	40
	Aspectos generales	40
	Conclusiones	41
	ALEGACIONES	42

Vitoria-Gasteiz, 2000ko abenduaren 18a

Vitoria-Gasteiz, 18 de diciembre de 2000



SARRERA

Arabako Biltzar Nagusiek hainbat fiskalizazio lan egiteko eskatu zutela-eta, lan horien zehaztasuna ikusirik, egoki iruditu zaigu egindako azterketa guztiak “Arabako Biltzar Nagusiek eskatutako Lan Bereziak” izeneko txosten bakar batean biltzea. Txosten hori HKEEk 2000ko apirila eta 2001eko martxoa bitarterako onartutako lan programaren barruan landu dugu.

Hauek dira txosten honetan aztertu ditugun kontuak:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (aurrerantzean GOFE) hainbat gastu eta dirulaguntzaren azterketa, hain zuzen ere Hirugarren Adina, Ezintasunak eta Gizarte Zerbitzuen alorrei buruzkoak, 1996 eta 1999 arteko aldiari dagozkionak.
- Ariznabarrako Adinduen Zainketarako Zentroa ustiatzeko zerbitzu publikoaren emakida: kontratazio akordioa eta emakidaren segimendua.
- Arabako Foru Aldundiak (aurrerantzean AFA) 1997 eta 1999 artean uraztatze sailetarako emandako dirulaguntzak. Diputatuen Kontseiluak Errioxako eta Errioxar Sonsierrako ureztatzaileen elkarteari emandako dirulaguntzen inguruan hartutako erabakiak.
- Gasteizko Udalak, AFAk eta Eusko Jaurlaritzak 1999an Deportivo Alavés eta Saski-Baskonia kirol elkarte anonimoei emandako dirulaguntza arruntak eta azpiegituretarako dirulaguntzak.
- AFAk Ebroko Parkearen instalazioak Lantarongo Udalari lagatzeko kontratua eta horrek Ingurumen Heziketa Sustatzeko Fundazioari lagatzeko kontratuaren betetze maila. Lagapen horren onuradunek zerga obligazioak betetzen dituzten ala ez egiaztatzeko segimendua.
- AFAk Arabako Ehiza-barrutien Elkartearekin izenpetutako hitzarmena eta 1999an emandako dirulaguntzak.



I. GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAREN HAINBAT GASTU ETA DIRULAGUNTZAREN AZTERKETA

I.1 ALDERDI OROKORRAK

Arabako Biltzar Nagusiek eskatu dituzten fiskalizazio lanak Hirugarren Adina, Ezintasunak eta Gizarte Zerbitzuen alorretako aurrekontu partida zehatz batzuren ingurukoak dira, 1996 eta 1999 arteko ekitaldiei dagozkienak. "Hitzartutako egoitza zerbitzuak" izeneko partidak bere gain hartzen du gehien bat Arabako Klinika Egoitzaren ohe gehikuntza, eta "Ekintza Positiborako Foru Planaren Kanpo Zerbitzuak" partida ez da sartu, kontzeptu asko daudelako tartean lanaren osotasunean inmaterialak gertatzen direnak. Hauek dira aztertutako partidak:

	EGOERA 1999	1996	1997	1998	1999
HIRUGARREN ADINA					
<u>AFADES, "Bizia" Eguneko Zentroa</u>					
Alzheimer eta zahartzaroko dementzia dutenak (milioi pta).....	HITZARMENA(*)	13	23	27	29
Erabiltzaile kopurua		25	25	25-35	35
<u>Araba Klinika Egoitza</u>					
Hirugarren adinekoen egonaldiak (milioi pta)	IRAGARRI GABE	207	209	218	256
Ohe kopurua	NEGOZIATUA	65	65	73	77
EZINTASUNAK					
<u>EHARI, Eguneko Zentroa</u>					
Ezintasun fisiko larriak (milioi pezeta)	LEHIAKETA	-	-	17	28
Atenditutako pertsona kopurua		-	-	12-15	12-15
<u>APDEMA</u>					
Adimen urrikoen egoitza-laguntza (milioi pta).....	HITZARMENA	136	147	152	188
Atenditutako pertsona kopurua		62	62	62	64
Aisialdia eta udalekuak (milioi pta)	HITZARMENA	16	17	17	20
<u>Enplegu Zentro Bereziak</u>					
Lanpostua mantentzeko dirulaguntzak (milioi pta)	DIRULAGUNTZA	19	15	13	8
<u>Pertsonen autonomiarako programa</u>					
Elbarrientzako laguntzak (milioi pta).....	DIRULAGUNTZA	55	55	56	57
GIZARTE ZERBITZUAK					
<u>Nuevo Futuro Elkartea</u>					
Adin txikikoen egoitza-laguntza (milioi pta).....	HITZARMENA	31	30	31	34
Atenditutakoen batezbesteko kopurua		13	13	13	13
<u>Sansoheta heziketa etxea</u>					
Gizarte-zailtasunak dituzten adin txikikoen zentroa (milioi pta).....	LEHIAKETA	-	-	44	80
Atenditutakoen batezbesteko kopurua		-	-	10	10
<u>Familia hezitzaileentzako kanpo zerbitzuak</u>					
Heziketa zerbitzua famili esparruan (milioi pta).....	LEHIAKETA	34	48	31	33
Familia kopurua		32	34	36	39
<u>Gao Lacho Drom-ekiko hitzarmena</u>					
Ijitoen gizarteratzea (milioi pta)	HITZARMENA	20	30	30	29

(*) 2000. urtean lehiaketa publikoa egin da.



Horiek horrela, aztertutako partida bakoitzaren oinarrizko informazioa zehaztuko dugu segidan:

- AFAko Gizarte Ongizaterako Departamentuak eta Gasteizko Udalak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten Alzheimer gaixotasuna eta zahartzaroko dementzia dutenen eta beren senideen Arabako elkartearekin (AFADES) “Bizia” Eguneko Zentro psikogeriatrikoa kudeatzeko. Zentroa Gasteizko Udalarena da. Zentro horren defizita erdi bana finantzatzen dute Gasteizko Udalak eta GOFEk. Aipatutako hitzarmena 1996ko ekainean sartu zen indarrean eta 25 erabiltzaile hartzen zituen barne. Gero, 1998ko maiatzean, erabiltzaile kopurua 35era handitu zen. 2000. urteko ekitaldian zerbitzu hau emateko lehiaketa publikoa deitu eta esleitu zen, AFADESek kudeaketaz arduratzeari uko egin ziolako.
- “Organización Médica de Vitoria, SL” erakundeak Araba Klinikari hirugarren adinarentzat ematen zituen egoitza-zerbitzuak hitzarmen bidez ematen zituen, horik eta 1998. urtean zerbitzua iragarri gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu zen arte. Hala egin izana Gasteizen zerbitzu hori eman dezakeen beste zentrorik ez dagoela esanez justifikatzen du GOFEk.
- Ezintasun fisiko larriak dituzten pertsonentzako eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzurako kontratua 1998ko maiatzean hasi zen, egin beharreko lehiaketa egin eta esleitu ondoren (urteko diru kopuru global baten arabera). Kontratu hori 1999ko ekitaldirako luzatu zen. 2000. urtean beste lehiaketa publiko bat izapidetu da, plaza bakoitzak egunean ordaindu beharreko kopuruaren arabera esleitu dena (6.785 pezeta eguneko eta plazako).
- Gizarte Ongizaterako Sailaren eta Arabako Adimen Urrikoen Aldeko Elkartearen (APDEMA) arteko lankidetzaz hitzarmenak ezartzen du adimen urriko pertsonentzako egoitza-laguntza emateko modua Gasteizen, Oionen eta Laudion taldeentzako etxeak eta laguntza-etxebizitzak prestatuz emango dela. 1999ra arte APDEMAk prezio publikoak kobratzen zituen eta GOFEk zerbitzuaren defizita finantzatzen, gastu gisa kontabilizatuta; 1999an egoera hau araupetu egin zen. Geroztik Erakunde Autonomoak egiten du diru sarrera horien bilketa, eta zerbitzua emategatik sortarazitako gastuaren zenbateko osoa gastu gisa kontabilizatzen. Horregatik, 1999ko aurrekontuan adierazitako gastua aurreko ekitaldietakoa baino askoz ere altuagoa da (221 milioi pezeta); kontuan hartuta sarrerak 33 milioi pezetakoak direla, zenbateko gordina, aurreko ekitaldietakoekiko konparatze aldera, 188 milioi pezetakoa izango litzateke.
- Egoera berezian dauden pertsonentzako lanpostuak mantentzea helburu duten enplegu zentro berezietan ematen zaizkien laguntzak 1996, 1997 eta 1998 urteetan deialdi publikoen bidez eman ziren. 1999an, aldiz, ez zen deialdirik egin eta laguntzak dirulaguntza izendunak emanez banatu ziren.
- Pertsonen autonomia izeneko programaren helburua ezinduta dauden pertsonen dirulaguntzak ematea da. Urtero deialdi publikoak egiten da eta deialdi horretan zehazten dira zein laguntza mota bideratzen den norbera hobeto moldatzera, norbere buruaren zainketara, etxeko lanetara, inguruarekiko harremanak areagotzera, batetik bestera errazago mugitzeko modua izatera, laguntza espezializatura, lan arloan aukera gehiago



izatera eta bestelako laguntza berezietara. Deialdian GOFEk emango dituen zenbatekoak finkatzen dira.

- AFaren Gizarte Ongizaterako Sailaren eta Arabako Nuevo Futuro elkartearen artean sinatutako lankidetza hitzarmenaren helburua famili egoera egokirik ez duten adin txikikoei laguntza ematea da, etxe bat eskainiz. Hitzarmen horrek ezartzen du adin txikikoez arduratzeko eta haiek zaindu eta hezitzeko lana Gasteizen kokatutako bi etxe funtzionalen bidez egingo dela. Elkartea etxe horietan bizi diren adin txikikoak eguneko 24 orduan zaintzeaz arduratzen da.
- Gizarte mailako zailtasunak dituzten adin txikikoez arduratzeko zentroak, “Hogar Socioeducativo Sansoheta” izenekoak, ematen duen zerbitzua GOFeko langileen bidez eta kanpoko langileen bidez ematen da. 1999. urtean lehiaketa publikoa egin zen zentroaren kanpo kudeaketaz arduratzeko. Horren aurrekontua 50 milioi pezetakoa izan zen. Lehiaketa, ordea, inori esleitu gabe gelditu zen. Gero, iragarri gabeko prozedura negoziatuaren bidez, 70 milioitan esleitu zen, 4 espresa gonbidatu zirelarik. 1999ko uztailan hasierako kontratuaren kopurua 13 milioi pezetatan gehitu zen, langileak berrantolatzeke eta plantilla handitzeko.
- “Heziketa Zerbitzua familia esparruan” izeneko zerbitzua 1996an esleitu zen lehiaketa publiko bidez, eta 1999ra arte luzatu zen. Zerbitzu hori emateko hezitzaileak kontratatzen dira, familien etxeetara joan eta terapiak egin ditzaten, bereziki gurasoen arazoak lantzen dituztelarik. Egindako lan orduen arabera fakturatzen dute.
- Gizarte Ongizaterako Sailak eta GAO LACHO DROMek izenpetutako lankidetza hitzarmenaren helburua ijitoen aurre-prestakuntza bideratzea da, Arabako Lurralde Historikoan gizarteratzeko aukera izan dezaten. Hori batez ere igeltserotza lanerako prestakuntza emanez, batik bat, eta emakumeak eta gazteak prestatuz egiten da.

I.2 ONDORIOAK

Hauek dira aztertutako diru-atalei dagokienez ateratako ondorio garrantzitsuenak:

- Aztertutako gastua, gehien bat, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eskumenekoak diren gizarte zerbitzuak beste batzuk egitearen ondorioz sortutakoa da. Badu oinarririk eta arrazoizko bilakaera dauka, aztertutako ekitaldietan zerbitzuaz baliatu diren erabiltzaile kopuruari begiratzen badiogu.
- Irabazteko asmorik gabeko elkarteekin eta interes sozialeko ongintzazko elkarteekin sinatutako lankidetza hitzarmenak tarteko (APDEMA eta Nuevo Futuro elkartearekin sinatutak, hain zuzen, AFADESek 2000. urtean uko egin baitio), elkarte horien defizita finantzatzen da. Hiru hilabeteen behin gastuen eta sarreraren likidazioak aurkezten dituzte, eta ekitaldiaren bukaeran ere likidazio bat aurkezten dute. AFAko kontuhartzaitza zerbitzuak elkarte hauek Kanpo Auditoretzako Urteko Plangintzaren barruan sartzen ditu eta txandan-txandan denen ikuskaritza egiten da urte ekitaldi zenbaitetan zehar.



Zerbitzu hauek ematea kontratu baten bidez arautu beharko litzatekeela iruditzen zaigu, egin beharreko zerbitzuaren prezioa finkatuta, nahiz eta, elkarte horien interes soziala kontuan hartuta, sortzen den defizita ere ordaindu behar izatea gertatu.

- Hirugarren adinekoentzako egoitza-zerbitzuak emateko esleipena iragarri gabeko prozedura bidez egin zen, Gasteizen zerbitzu hori eman zezakeen beste zentrorik ez dagoela aitzakia hartuta.

Gure iritziz, aipatutako prozedura hori erabiltzeko justifikazioa agerian gelditu beharko zuen aldez aurretik egindako lehiaketa publikoan, jasotako eskaintzen bidez.

- GOFEk izenpetutako hitzarmen eta kontratuen luzapenak izapidetzerakoan ez da egiaztatu zerbitzuak ematen ditzuztenek eguneratuak ote dituzten zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak.

Luzapena izapidetzeak baldintza horiek egiaztatzea eskatzen du, kontratazioak egiteko araudian hala ezarrita baitago.



II. ARIZNABARRAKO ADINDUEN ZAINKETARAKO ZENTROAREN USTIAPENAREN ZERBITZU PUBLIKOA EMAKIDA ERREGIMENEAN KUDEATZEKO KONTRATUA

II.1 ALDERDI OROKORRAK

Honako hau da aztertutako kontratuari buruzko informazio garrantzitsua:

- Ariznabarrako adinduen zainketarako zentroaren ustiapenaren zerbitzu publikoa emakida erregimenean kudeatzeko kontratua lehiaketa ireki bidez esleitu zen Diputatuen Kontseiluak 1999ko otsailaren 23an hartutako Erabaki bidez. Kontratuak berekin dakar, besteak beste, zentroa eraikita dagoen jabari publikoko orubearen erabilera pribatiboaren emakida, eta emakidadunak ezin duela inolako karga edo grabamenik ezarri bere eskubidearen gainean.
- Kontratuaren xedea aipatutako zentroaren ustiapenaren zerbitzu publikoa kudeatzea da. Horretarako esleipendunak honako ekintza hauek egin behar ditu bere kontura:
 - Zerbitzua ezartzeko egin beharreko lanen egitasmoa.
 - Zentroaren lehen ezarpenerako eta ekipamendurako lanak.
 - Zentroaren mantentzen eta zainketa lanak emakida dirauen bitartean.
- Hauek dira esleipendunak eman beharreko zerbitzuak:
 - Egoitza zerbitzua, 140 lagunentzako lekua eskainiz guztira.
 - Eguneko zentro zerbitzua, 60 lagunentzako guztira. Zentro horretan ezintasun fisiko edota psikiko larriak dituzten pertsonak zainduko ditu.
- Kontratuaren iraupena 45 urtekoa da, esleipen egunetik aurrera kontatzen hasita, eta 75 urte arte luza daiteke. Kontratuaren iraupen epea bukatzen denean AFAk eraikita dagoena bere egingo du, inolako kalte ordainik gabe, eta lurzorua eta eraikinaren gainean dauden eskubide guztiak amaitutzat emango dira (ibilgetu materiala eta zentroko ekipamendua).
- Plaza eta eguneko finkatutako esleipen prezioa (1998. urtea da oinarri urtea) 9.310 pezetakoa da egoitza zerbitzurako, eta 5.390 pezetakoa, berriz, eguneko zentrorako. Prezio hauek beherantza alda daitezke, esleipendunak laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen baditu, hasierako inbertsioari aurre egiteko onura fiskalak ere sartzen direla. Prezioak aldatzeko esleipendunak lizitazioaren memoria ekonomiko eta finantzarioan emandako datuei begiratuko zaie.

Lanak bukatzen direnean AFAk ordaindu beharreko prezioak finkatuko dira, 1998ko erreferentzia prezioei zerbitzua martxan jarri arte igarotako urtearen edo urteen KPIren



igoera aplikatuta. Ondoko ekitaldietarako prezioak jartzerakoan urte bakoitzean aurreko urtearen estatuko KPI hartuko da kontuan.

Zentroan plaza hutsak baldin badaude, bai egoitza zerbitzuan eta bai eguneko zentroan, horiei dagokien %60a ordainduko die AFAk esleipendunei, salbu eta plaza horiek bete gabe egotearen arrazoia esleipendunarena baldin bada. Hala gertatuz gero ez die batere dirurik ordainduko plaza horiengatik.

Zentroa eraiki eta ekipatzearen ondorioz egin behar izandako hasierako inbertsioaren amortizazioa bukatzen denean, 25 urteko epean egin beharrekoa, prezioak egokitu egingo dira, hasieran egindako inbertsioaren amortizazio osagaia, kontratazioaren hasierako prezioan sartutakoa, kontuan ez hartzeko.

- Inbertsiorako aurreikusitako balioa 1.228 milioi pezetakoa da.

II.2 ONDORIOA

Fiskalizazio lana egin zenean zentroko lanak bukatu gabe zeuden, eta, horrenbestez, zerbitzu publikoaren emakidaren ustiapena hasi gabea. Kontratazio espedientea aztertuta ez dugu garrantzizko akatsik ikusi, epea ez ezartzearena izan ezik.



III. ARABAKO FORU ALDUNDIAK 1997 ETA 1999 ARTEAN UREZTATZE LANETARAKO EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

III.1 ALDERDI OROKORRAK

SARRERA

Atal honetan AFAk 1997 eta 1999 artean ureztatze lanetarako emandako dirulaguntzak aztertzen dira. Horrenbestez, ekitaldi horietan hartutako konpromisuak sartuko dira, Errioxako eta Errioxar Sonsierrako ureztatzaileen elkarteari emandako dirulaguntzak barne hartzen direla, Arabako Biltzar Nagusiek horien inguruko eskaera berezia egin baitzuten.

Eusko Legebiltzarrak azaroaren 21ean onartutako 7/1992 Legeak hainbat kontu arautu zituen urezta daitezkeen lurrei, hobekuntzako eskualde plangintzei eta eraldakuntza plangintza orokorreari buruz. Lege horretan landa eremuetarako euskal plangintza estrategikoa aipatzen da, eta horren helburuetako bat ekoizpen-egiturak egokitzea da, eskatzen baitu Araban lur eremu handiagoa prestatzea ureztatzeko. Aipatutako plangintza estrategikoan egin beharreko inbertsioen nondik norakoak ere azaltzen dira, hots, 36.000 hektarea inguruko azalera ureztatzeko 15.000 milioi pezetatik gora.

7/92 Legearen araubidezko garapena burutu gabe egon arren, badago lanerako dokumentu bat, 1997ko otsailekoa, Arabako Ureztatze Plangintza izenekoa. Hori dute aipagai ureztatze-sailetarako emandako laguntzak arautzen dituzten dekretuek. Plangintza horretan 13 ureztatze-sail sartzen dira, gehi beste atal bat egon dauden ureztatze-sailak hobetzeari begira, guztira 37.444 hektareako azalera. Horien finantzaketa publikoko aurrekontua lanen kostuaren % 79,5ekoa da, hau da, 16.900 milioi pezeta.

Diputatuen Kontseiluak emandako 55/1999 Foru Dekretuaren bidez Arabako nekazaritza eta abelazkuntza sektoreari laguntzak emateko ildoak eta oinarriak onartu ziren, eta honako bereizketa hau egiten du ureztatze-sailetarako lanei dagokienez:

- Arabako ureztatze-sailetarako plangintza (PRA): Araban egon dauden ureztatze-sailak hobetzeko eta beste alor batzuk ureztatze-sail bihurtzeko (14 eremutan sartuak) egin beharreko jardueren programa, bai eta Eusko Jaurlaritzarekin jarduerak finantzatzeko sinatzen diren hitzarmenetan finkatzen direnak ere, sinatzen bada. Lehendik ureztatzekoak ez ziren lursailak ureztatze-sail bihurtzeko egitasmoak AFAk egingo ditu, eta AFAk berak kontratatuko ditu lanak. Gero, lanak jasotzen dituenean, ureztatzaileen elkarteari emango dizkio.
- Ureztatze-sailetarako lan txikiak: egon dauden ureztatze-sailak modernizatzeko lanak sartzen dira hemen, edo sail horietan egiten diren lan txikiak, baldin eta horien aurrekontua ez bada 24.957.900 pezetatik gorakoa (50 milioi pezeta 1997an eta 75 milioi pezeta 1998an).

Era berean, Dekretu honek ezartzen du zenbatekoak izan behar duten lanak eta egitasmoen kostuak finantzatzeko laguntzak. Laguntza hauek berdinak dira PRA izeneko programarako eta beste lan txikietarako ere. Hauek dira laburbilduz:



- Lanen, zerbitzu-sarien eta abarren %75aren balioko dirulaguntza zuzenak. Kasu berezietan bost puntutan handituko da.
- Inbertsioaren gainerako zatirako (%25) mailegu bat hartu ahal izango da, 15 urte arteko epean ordaintzeko eta onuradunaren kargurako %2ko interes finkoa izango duena lehenengo 6 urteetan (%3 1997 eta 1998 urteetan) eta kredituak dirauen ondoko urteetan, berriz, finantza entitateekiko hitzarmenean ezarritako baldintzak izango dituen.

ARABAKO UREZTATZE SAILETARAKO PLANGINTZA

Beheko taulan zehatz mehatz agertzen da zein den lanen egoera eremu bakoitzean eta zenbateko diru kopurua esleitu zuen AFak 1997 eta 1999 artean. Bestalde, ureztatzaileen elkarteak egindako ekarpena eta AFarentzako kostua ere adierazita daude eta 2000. urterako presupuestatutako inbertsioak ere bai (horietan ez dute kontuan hartu ureztatzaileen elkarteen ekarpenak, ez baitira finkatu).

UREZTATZE SAILETARAKO PLANGINTZA-LANEN ESLEIPENA		Milioi pta.			
EREMU UREZTAGARRIA	EGOERA	LANAK GUZTIRA	UREZTATZAIL. EKARPENAK	AFA KOSTUA	AURREK. 2000
Noryeste	1. fasea egina	1.062	211	851	-
Río Rojo	Egiteko	-	-	-	1.138
Mendiluzea	Egina	902	181	721	-
Maestu	Egiteko	-	-	-	-
Arabako Ibarrak	Egiteko	-	-	-	(2)250
Aspuru.....	Egiteko	-	-	-	-
Bernedo.....	Egina	155	38	117	-
Agurain	Egiteko	-	-	-	-
Oion	Egina	412	102	310	-
Andollu.....	Egiteko	-	-	-	-
Arrato (handitzea).....	Egitasmorik gabe	-	-	-	-
Azazeta	Egitasmorik gabe	-	-	-	-
Arabako Errioxa	(1)	-	-	-	-
Mañueta, Yécora eta Lantziego.....	Egiteko	-	-	-	2.267
Kripan, Bilar, Leza, Moreda, Eskuernaga, Samaniego	Egitasmorik gabe	-	-	-	-
Dauden ureztatze-sail. hobetu: S. Vitor Gauna	Egina	101	25	76	-
GUZTIRA		2.632	557	2.075	3.655

(1) Eltziegion, Labastidan, Laguardian eta Navaridasen egin beharreko lanak Estatuak hartu ditu bere gain, eta 2000. urterako Aurrekontu Orokorren Legean interes orokorrekoetat jo.

(2) Orube erosketari dagokio.

Lanen finantzaketarengatik AFak ordaindu beharrekoari (2.075 milioi pezeta), beste hau gaineratu beharko litzaioke: interes tipoen dirulaguntzak (24 milioi pezeta).

1999ko aurrekontuan Noryesteko ureztatzaileen elkartearen izenean 781 milioi pezetako dirulaguntza sartu zen ureztatze-sail horretako 2. faseari dagozkion lanak egiteko. Esleipena



inori eman gabe utzi zen, horretarako txosten tekniko batek zioena kontuan hartu zelarik. Txosten horren arabera idatzitako egitasmoa ez zetorren bat gaur egungo errealitatearekin, eta ezinezkoa zen egitea bertan eta enpresa lizitatzailleek egindako eskaintzetan agertzen ziren prezioen arabera.

Ureztatze-sail bihurtzeko egitasmoak AFAk kontratatzen eta finantzatzen ditu erabat. Hauek dira 1997 eta 1999 artean esleitutako aurrekontuak:

EGITASMOEN ESLEIPENAK 97-99 ARTEAN	Milioi pta.
	Zenbatekoa
Arabako ibarrak	126
Agurain	98
Aspuru	5
Berantevilla.....	9
Yécora.....	6
Lantziego	9
Maestu	10
Mañueta	6
Noryeste.....	22
Beste egitasmo eta lan txiki batzuk	14
GUZTIRA	305

Egitasmo hauei dagozkien lanen zati handiena ez daude jasoak ezta 2000. urteko aurrekontuetan ere. Aipagarria da Arabako Ibarretako eta Aguraingo egoera, izan ere leku horietako egitasmoak 1997an esleitu ziren eta oraindik ere ez dago inolako aurreikuspenik lanei ekiteko.

UREZTATZE LAN TXIKIAK

Hauek dira 1997 eta 1999 artean laguntza hauen bidez egindako inbertsioak:

97-99 dirulaguntza konprometituak	Milioi pta.
UREZTATZAILEEN ELKARTEAK	Zenbatekoa
Tuyo.....	4
Aranduya	48
Iturrioz	27
Mazabala	35
Izua	70
El Risco.....	9
Río Rojo Berantevilla	12
Santa Teodosia	3
Basondi	16
Rotalde.....	51
Tumecillo.....	3
JA Antoñana	6
GUZTIRA	284



ERRIOXA ETA ERRIOXAR SONSIERRAKO UREZTATZAILEEN ELKARTEARI EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

1997an Arabako Errioxako eta Errioxar Sonsierrako ureztatzaileen elkarteak, sortzen ari zelarik, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eskatu zion 300 litro segunduko emaria emateko Inglares ibaitik, Berganzoko Gune Hidroelektrikoaren karga kanalean (Iberdrola Sarena baita) Ebroko ezker aldean Errioxako eskualdeko 5.000 hektarea ureztatzeko.

Iberdrola SAK alegazioak aurkeztu zituen ureztatzaileen elkarteak egindako eskaera ikusita, eta hori egitearen aurka azaldu zen, bere aprobetxamenduaren kaltetarako zelako, eta eskatu zuen eskaera hori dela eta hasitako jardunbidea etetea. Ureztatzaileen elkarteak adierazi zuen emakidaren eskubideak eskuratu nahi zituela, baina legez osaturik ez zegoenez, eta, horrenbestez, ondare propioerik ez zuenez, hirugarren bat sartu zen tartean, 1997an Iberdrolari aprobetxamendu hidroelektrikoa erosi ziona, agiria izenpetzerakoan 25 milioi emanda eta aprobetxamenduaren ondasun eta eskubideak 2000. urteko urtarrilaren 1ean entregatuz gero 458 milioi ordaintzekotan (453 milioi pezeta 2001eko urtarrilaren 1ean entregatuz gero).

Arabako Foru Aldundiak operazio honen inguruan egindakoak hauek dira:

- Diputatuen Kontseiluak urriaren 19an eta azaroaren 16an hartutako 898 eta 999 erabakien bidez 25 eta 458 milioi pezetako dirulaguntzak eman zitzaizkion, hurrenez hurren, Errioxako eta Errioxar Sonsierrako ureztatzaileen elkarteari Inglares ibaiaren aprobetxamendu hidroelektrikoari atxikitako orube eta instalazioen gaineko eskubideak eta horri loturiko eskubideak erosteko, aurreko idazatian aipatutakoak, eta, bestalde, 2,5 milioi pezeta inguru eskritura publikoaren gastuak ordaintzeko.

Bi dirulaguntza horiek, ureztatze-sailtako plangintzetakoak ez bezala, ez daude aurrekontuan dirulaguntza izendun gisa sartuak.

- Diputatuen Kontseiluak 1999ko azaroan hartutako 951/99 eta 998/99 erabakiek aurrekontuaren aldaketak onartzen dituzte, 27,5 eta 458 milioi pezetakoak, hurrenez hurren, goian aipatutako dirulaguntza horiekin loturik daudenak.
- 2000ko urtarrilaren 18an, Diputatuen Kontseiluak hartutako erabaki bidez (8. zk.) 898, 999, 951 eta 998/99 akordioak baliogabetu zituen, ureztatzaileen elkarteak uko egin ziela-eta.
- Diru fluxuari dagokionez esan beharra dago ureztatzaileen elkarteari 25 milioi pezeta eman zitzaizkiola, hilabeteko epean itzuli zutena gutxi gorabehera. Dirulaguntzaren gainerako zatia, gero baliogabetu zena, ez zuen AFAk ordaindu.

Bukatzeko esan beharra dago Estatuak 2000. urterako onartutako Aurrekontuen Legeak interes orokorreko zat jotzen dituela Labastida, Briñas, Ávalos, San Vicente de la Sonsierra, Laguardia, Navaridas eta Eltziegoko ureztatze-sailak eta Ebro ibaiaren ezker aldeko beste ureztatze-sail batzuk hobetu eta modernizatzeko egitasmoan sartutako lanak. AFAk ez du inolako diru kopururik ordaindu lan horiek egiteko.



III.2 ONDORIOAK

Hauek dira egin dugun azterketatik ateratzen ditugun ondorio garrantzitsuenak:

- Arabako Foru Aldundiak PRA izeneko plangintzan jasota agertzen diren lursail ureztagarrietan 1997 eta 1999 artean egindako jarduerak 2.075 pezetako gastua ekarri dute, eta aurreikusitako 13 lursailetatik 4ri egiten die erreferentzia. Finantzaketa publikoaren aurreikuspena PRA osorako 16.900 milioi pezetakoa zen
- Lurra ureztatze-sail bihurtzeko egitasmoak, askotan, horretarako egin beharreko lanak egitasmoak bukatu eta handik gutxira hasiko ote diren jakin gabe esleitzen eta egiten dira. Horrela, aipatzekoak dira Arabako Ibarretako eta Aguraingo egitasmoak, izan ere, 1997. urtean esleitu ziren, 224 milioi pezetako zenbateko osoan, hots, AFak PRA programako egitasmoengatik esleitutako zenbateko osoaren %74an, eta oraindik ez dira aurrekontuetan jaso, ezta 2000. urtekoan ere.

Komenigarria litzateke ureztatze egitasmoak egiterakoan ahalik eta denborarik gutxien pasatzea proiektuak egiten direnetik inbertsioak egiten diren arte, egin beharreko jarduerak eraginkorragoak izan daitezen eta egitasmoak zaharkiturik geldirik ez daitezen, horrek kalte ekonomikoa ekarriko bailioke administrazioari.

- HKEEK urtero aztertzen ditu AFaren Kontu Orokorrak, eta horien fiskalizazio lana egiterakoan aztertu da, alde batetik, AFak PRA izeneko programan jasotako lanen kontratazioa eta, bestetik, Arabako Ibarretako ureztatze-sail bihurtzeko egitasmoa. Azterketa horietan salbuespen bat ikusi ahal izan da legea betetzeari dagokionez:

Arabako Ibarretako ureztatze-sail bihurtzeko egitasmoaren idazketarako aholkularitza eta laguntza kontratuari dagokionez, 116 milioi pezetatan esleitu baitzen 1997an, 47 milioi pezeta ordaindu ziren aurkeztutako lanari onspena eman aurretik eta bermerik eskatu gabe. Egitasmoa atzera itzuli zen, zuzentzeko, eta handik hiru hilabetera zuzendu.

- Arabako Biltzar Nagusiek Errioxako eta Errioxar Sonsierrako ureztatzaileen elkarteari emandako dirulaguntzen fiskalizazioaren inguruan egindako eskaerari dagokionez atera dezakegun ondorioa hau da: Arabako Foru Aldundiak ez duela dirurik eman Errioxako eta Errioxar Sonsierrako ureztatzaileen elkartearen ureztatze-sailen lanak egiteko.



IV. ARABAKO FORU ALDUNDIAK ETA GASTEIZKO UDALAK DEPORTIVO ALAVÉS ETA SASKI BASKONIA KIROL ELKARTE ANONIMOEI EMANDAKO DIRULAGUNTZAK.

IV.1 ALDERDI OROKORRAK

Deportivo Alavés eta Saski Baskonia Kirol Elkarte Anonimoek Arabako Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin 1999an izan dituzten diru harremanak honela laburbiltzen dira:

- AFAk kirol elkarte anonimo horiekin izenpetutako protokoloak.
- Saski Baskonia kirol elkarte anonimoak Errege Kopa eta San Prudentzio txapelketa antolatzeke jasotako dirulaguntzak.
- Mendizorrotza Futbol Zelaia eta Fernando Buesa Arena erabiltzeko kontratuak.

Arabako Biltzar Nagusiek egindako eskaeran Eusko Jaurlaritza ere sartzen bazen ere, kontuan izan behar da erakunde horrek futbol zelaiaren eta Fernando Buesa Arenaren lanen finantzaketan bakarrik hartu duela parte, Gasteizko Udalarena eta Arabako Foru Aldundiarena direnak, hurrenez hurren, eta, horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak ez die inolako dirulaguntzarik eman ez Deportivo Alavés kirol elkarte anonimoari ez eta Saski Baskonia kirol elkarte anonimoari ere.

AFA-REN ETA DEPORTIVO ALAVÉS ETA SASKI BASKONIA KIROL ELKARTE ANONIMOEN ARTEKO PROTOKOLOA

1999ko apirilaren 20an eta 1999ko ekainaren 11n Arabako Foru Aldundiak hitzarmen bana izenpetu zuen Saski Baskonia eta Deportivo Alavés kirol elkarte anonimoekin. Hitzarmen horien helburua bi kirol elkarte anonimo horiek egiten dituzten sustapen-jarduerak arautzea da, arabar gizartearentzat onuragarriak direlako.

Egin beharreko zereginak, AFAREN eta Deportivo Alavés eta Saski Baskonia elkartearen artean izenpetutako protokoloen arabera, honako hauek dira:

- “Foru Aldundia” futbol txapelketa eta “Araba” saskibaloia txapelketa antolatzea, hurrenez hurren. Partiduetarako sarreretan AFAk zehazten dituen anagrama eta logoak agertu behar dute eta AFARI hainbat sarrera eman behar dizkiote xede jakin batekin.
- Arabako oinarri-futbola eta -saskibaloia sustatzea.
- Kamisetetan publizitatea eramatea eta Deportivo Alavés eta Saski Baskonia kirol elkarte anonimoetako jokalaritza talde osoaren inguruko irudi eskubideak. Hor sartzen dira, besteak beste, Mendizorrotza futbol zelaiko iragarki estatikoak eta hilabetero argitaratzen den BASKET BASK aldizkariaren azalaren atzeko aldeko iragarkia.
- Partiduak ikusteko sarrerak ematea.
- Dibulgazio didaktikoa egitea, Arabako ikastetxe eta udaletan sustapen helburuko bisitaldiak eginez.
- Mezetan, karteletan eta bestelako iragarki euskarrietan euskara erabiltzea.



- Lurraldearen sustapena egitea Deportivo Alavés kirol elkarte anonimoaren kasuan.
- Entrenatzaileentzako hitzaldiak ematea Saski Baskonia kirol elkarte anonimoaren kasuan.
- Taldeak eliteko saskibaloira sartzeko aukerak ematea Saski Baskonia kirol elkarte anonimoaren kasuan.

Protokoloen iraupena lau urtetarakoa da, 2002. urtean bukatzen delarik. Bakoitzaren zenbatekoa urtean 140 milioi pezetakoa da. 1999ko gastua osatzen duen 280 milioi pezetako kopurua atxiki egin da Deportivo Alavés eta Saski Baskonia kirol elkarte anonimoen zerga zorraren ordainetan. Konpromisuzko kredituen egoera 1999ko abenduaren 31n hurrengo hiru denboraldietarako urte askotarako kredituak hartzen ditu, guztira 420 milioi pezeta elkarte bakoitzarentzat.

SASKI BASKONIA KIROL ELKARTE ANONIMOARI ERREGE KOPA ETA SAN PRUDENTZIO SASKIBALOI TXAPELKETA ANTOLATZEKO EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

1997ko urriaren 27an Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Saski Baskonia kirol elkarte anonimoak hitzarmen bat sinatu zuten Saskibaloiko 2000. urteko Errege Koparen azken fasea antolatzeko gastuak finantzatzeko. Hitzarmena izenpetu zuten erakunde publikoek hogeita hamarna milioi jarri zuten.

Gainera, AFak beste 20 milioi pezeta eman zizkion Saski Baskonia kirol elkarte anonimoari Saskibaloiko San Prudentzio txapelketa 4 urtez antolatzeko, 1997tik aurrera, zerbitzuen ordain gisa hartzen dena.

DEPORTIVO ALAVÉS KIROL ELKARTE ANONIMOAK MENDIZORROTZAKO FUTBOL ZELAIA ERABILTZEA ETA SASKI BASKONIA KIROL ELKARTE ANONIMOAK FERNANDO BUESA ARENA ERABILTZEA

Gasteizko Udalak eta Deportivo Alavés kirol elkarte anonimoak hitzarmen bat sinatu zuten 1998ko abuztuan, 25 urtetarako, Mendizorrotzako futbol zelaia erabiltzearen inguruan. Deportivo Alavés elkarteak futbol zelaiaren erabilera eskusiboa izango du, futbolearen aritzeko, eta instalazio eta zerbitzu guztiak zaintzeko eta iraunarazteko gastuak bere gain hartuko ditu. Lagapenaren prezioa urteko 20 milioi pezetako kanonean hitzartu zen, Deportivo Alavés kirol elkarte anonimoak futbol profesionaleko ligaren bitartez egingo duen ekarpenarekin konpentsatuko dena, izan ere Mendizorrotzako futbol zelaiko instalazioak berriro egingo dira, zehazki eranskin batean lan eta inbertsio bereziak egingo dira (500 milioi pezetakoa da egingo den berrikuntza lana). Bestalde, Deportivo Alavés elkarteak zelai horretan jokatzeko den partidu bakoitzeko 225 sarrerara emango dizkio, palkoko 6 sarrerez gain.



Mendizorrotzako futbol zelaiak 1.671 milioi pezetako balioa du inbentarioan 1999ko abenduaren 31n. Futbol zelaian egitekoak diren lanen balioa, egun horretarako esleituak baina egin gabe zeudenak, 1.370 milioi pezetakoa da.

Araba Arena SA elkarteak, Fernando Buesa Arenaren kudeaketaren arduraduna, AFArena baita oso-osorik, eta Saski Baskonia kirol elkarte anonimoak lehentasunezko erabiltzaile kontratua izenpetu zuten 1999ko uztailaren 1ean kirol elkarte horrek 15 urtez Fernando Buesa Arena erabiltzeko (epea luza daiteke). Kontratuaren xedea pabilioi hori erabiltzen uztea da, Saski Baskonia ACB ligako taldea den aldetik, horrekin zerikusia duten ekintzak egiteko. Pabilioian bi alderdi bereizten dira, batetik, kirol elkarte anonimo honek bakarrik erabiltzekoa dena eta, bestetik, Araba Arena SAK eta biak erabiltzekoa dena. Saski Baskonia kirol elkarte anonimoak ez du ezer ordaintzen pabilioia erabiltzeagatik, eta bere gain hartzen ditu pabilioiaren mantenimendu, garbiketa, zainketa, segurtasuna eta horrelako bestelakoengatik ordaindu beharrekoak. Pabilioia Araba Arena SAK erabiltzen duenean, elkarte horrek ekitaldiengatik ordaindu beharrekoak ordaintzen dizkio Saski Baskonia kirol elkarte anonimoari.

Fernando Buesa Arenak AFAko inbentarioan duen balioa 2.756 milioi pezetakoa da.

IV.2 ONDORIOAK

Hauek dira egin dugun azterketatik ateratzen ditugun ondorio garrantzitsuenak:

- 2000. urteko irailaren 10ean Deportivo Alavés kirol elkarte anonimoak agiri bat aurkeztu zuen udalean futbol zelaia erabiltze aldera izenpetutako hitzarmenean ohartemanda zeuden 500 milioiko inbertsioei dagokienez, Espainiako Futbol Profesionalaren Elkarteak egina. Agiri horren bidez 2000ko maiatzaren 31 arte egindako inbertsioak justifikatzen dira, hots, 312 milioi pezeta, obra zibil, harlandu eta elementu teknikoengatik; bestalde, 2000ko azaroaren 22an futbol zelaian jarritako bideomarkagailuen enpresa hornitzaileak egindako idazki bat aurkeztu zuen, 153 milioi pezetari dagokiona. Egindako inbertsioak justifikatzeko agiriak aurkez ditzala eskatu dio 2000ko abenduan udalak Deportivo Alavesi. Pendiente dagoen kopuruari dagokionez esan beharra dago, hitzarmenean ez dagoela ezarrita inbertsioak egiteko epea.
- Gasteizko Udalaren eta Deportivo Alavés kirol elkarte anonimoaren artean Mendizorrotzako futbol zelaiaren erabileraren inguruan sinatutako hitzarmenak eta Araba Arena SA elkartearen eta Saski Baskonia kirol elkarte anonimoaren artean Fernando Buesa Arena lehentasunez erabiltzeko kontratuak dirulaguntza izaera dute.



V. ARABAKO FORU ALDUNDIAK EBROKO PARKEAREN INSTALAZIOAK LANTARONGO UDALARI LAGATZEKO KONTRATUA ETA HORREK INGURUMEN HEZIKETA SUSTATZEKO FUNDAZIOARI LAGATZEKO

V.1 ALDERDI OROKORRAK

Diputatuen Kontseiluak ekainaren 5ean emandako 870/1990 Foru Dekretuakren bidez Lantarongo Udalari Sobrongo egoitzen instalazioen erabileraren prekarioko lagapena egitea erabaki zen, ingurumenarekin zerikusia duten helburuetarako erabiltzeko. Hauek dira lagapenaren alderdi garrantzitsuenak:

- Lagatutako eraikin eta orube saila, AFAko inbentarioan 197 milioi pezetatan baloratua dagoena, honako hauek osatzen dute: bi eraikin, ermita, biltegia, frontoia, askaldegia, egoitzari itsatsitako orubeak, Ebro ibai gaineko zubia eta egoitzetako bati atxikitako etxea.
- Lagatutako orube eta instalazioak natura eta ingurumena ezagutu, errespetatu eta zaintzeari begira egiten diren heziketa eta prestakuntza jardueretarako erabili behar dira, edo guztion erabilera eta gozamenerako. Hala egiten ez bada AFAREN eskuetara itzuliko da berriz ere.
- Lantarongo Udala, adierazitako helburuak betetzen baditu, edozein kudeaketa sistemez baliatu ahal izango da lagatutako ondasun horiek kudeatzeko, baita 3. pertsonen edo elkarten bidezko ere.
- Lagapena dohainik egiten da, 10 urtetarako (epe hori luza daiteke), Entrega Agiria sinatzen den egunetik aurrera.

1990eko abuztuaren 8an Lantarongo Udalak mintzagai ditugun ondasunen erabilera lagatzea onartu zuen, eta egintza horretan erabaki zuen lagapena Fundación para el Fomento de la Educación Ambiental izenekoaren alde egitea (aurrerantzean Fundazioa deituko diogu), goian aipatutako helburuetarako erabiltzeko. Agiria 1991ko otsailaren 28an egin zen. Foru Aldundiak udalari lagapena egin zioneko akta 1990eko azaroaren 13koa dela kontuan hartuz, Fundazioari egiten zaion lagapena ere 10 urtetarako da egun horretatik aurrera.

Lantarongo Udalak ez zion Fundazioari zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak zituela adierazten zuen egiaztagiria eskatu lagapena gauzatzeko unean. Hori da, hain justu, HKEEK Arabako Biltzar Nagusiek lagapenaren onuradunaren zergen segimendua dela eta egindako eskaeraren ondorioetarako egiazta dezakeen baldintza bakarra.

1992ko uztailan Fundazioak alta eman zuen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan ostalaritza eta sukaldaritzarekin zerikusia duten jardueretarako. Jarduera horri lagapen bidez jasotako ondasunetan ekin zion. 1995eko martxoan Fundazioak baja eman zuen zerga horretan, eta R.S.T. Ebro, S.L. izenarekin alta eskatu, jarduera berekin jarraitzeko asmoz. Elkarte horren bazkideak hauek ziren 1995ean: %99,8 Fundazioa eta %0,2 partikular bat. Une horretatik aurrera elkarte horrek kudeatzen ditu Lantarongo Udalak lagatutako ondasunak.



1999ko urriaren 13an Lantarongo Udalaren osoko bilkurak erabaki zuen Fundazioari jakinaraztea lagapena 2000ko azaroaren 13an bukatuko zela.

V.2 ONDORIOAK

Lantarongo Udalaren eta Fundazioaren artean sinatutako lagapen kontratua dela eta honako ondorio hauek atera ditugu:

- Lagatutako instalazioetan burutzen zen ostalaritza eta sukaldaritza jarduera ez zegoen aurreikusita lagapen kontratuan, jarduera horiek ez dutelako zerikusirik ez ingurunearen heziketa eta prestakuntzarekin ez eta guztion erabilera eta gozamenarekin.

Ondoren, 1994ko azaroan Foru Agindu bidez Lantarongo Udalari jakinarazi zitzaion ostalaritza eta sukaldaritza jarduerak ez direla eraikinak lagatu zireneko helburuen kontrakoak baldin eta jarduera horiek bigarren mailakoak badira eta naturaren inguruko heziketa, prestakuntza, errespetua eta zaintza helburuen menpe baldin badaude, horretarako egin baitzen lagapena.

Gure iritziz, lagapen kontratuan aurreikusitako erabilera hertsiki betetzeak, finantzaketa biderik artikulatu gabe, egitasmoaren bideragarritasuna oztopa lezake. Horrenbestez, eta kontuan hartuta lagapenaren epea berehala bukatuko dela, komenigarria litzateke beste kudeaketa mota batzuk aztertzea aurreikusitako jarduerak burutu ahal izateko eta ondasun publiko hauei erabilera egokia eman ahal izateko.

- Lagapena gauzatzeko unean Lantarongo Udalak ez zion Fundazioari zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak zituela adierazten zuen egiaztagiria eskatu. Dena den, Ebroko Heziketa Parkearen egitasmoaren prestaketa zela eta, horretarako beharrezkoak ziren egiaztagiriak eskatu ziren 1992ko ekainean. Horietatik ondorioztatzen da onuradunak eguneratuak zituela bere betebeharrak fiskal eta sozialak.

Lagapenerako kontratu pribatuaren prestaketan eta esleipenean administrazioarekiko kontratazioaren inguruan aplikatu beharreko araudiak kontratua gauzatzeko baldintza hori betetzea eskatzen du (Administrazio Publikoaren Kontratuen 20.f atala).



VI. ARABAKO FORU ALDUNDIAK ARABAKO EHIZA-BARRUTIEN ELKARTEEKIN IZENPETUTAKO HITZARMENA ETA 1999AN EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

VI.1 ALDERDI OROKORRAK

Arabako ehiza-barrutien elkartean AFAn erroldatutako 142 ehiza-barrutietatik 125 daude sartuak (aurrerantzean ACCA deituko diogu, Asociación de Cotos de Caza de Álava baitu izena).

Diputatuen Kontseiluak ekainaren 4an hartutako 358/96 zenbakiko erabaki bidez ACCArekin urtebeterako izenpetutako lankidetza hitzarmena onartu zen (hitzarmenaren iraupena luza daiteke). Diputatuen Kontseiluak 1999ko martxoaren 16an hartutako erabaki bidez hitzarmen horren iraupena 1999ko ekitaldira luzatzea erabaki zen. Hitzarmenaren indarrez ACCAk hainbat jarduera egitea hartu zuen bere gain, ondoko lehentasunezko helburu hauek lortze aldera:

- Ehiza eta arrantzaren inguruko jardueren antolamendua, plangintza eta kudeaketa hobetzea.
- Ehiztarien asoziazionismoa bultzatzea.
- Ehiztarien laguntza teknikoa eta administratiboa bultzatzea eta bideratzea.
- Zaintza leku komunak bultzatzea.

AFAk hitz ematen du pertsonal gastuak, administraziokoak, habitatak hobetzera eta birpopulaketa bultzatzera bideratutakoak eta erantzukizun zibileko polizari dagozkionak ordainduko dituela, baldintza batzuren barruan.

Hitzarmenaren zenbatekoa, 1999an, 40 milioi pezetakoa izan zen, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontuan dirulaguntza izendun gisa sartu zena. Martxoaren 16ko erabakian ACCAk Arabako basa-bizitzaren kudeaketa integralerako plangintza prestatzearen ondoriozko gastu guztiak ere AFAk ordainduko dituela agertzen da. Horren gehienezko kopurua 5,8 milioi pezetakoa da, inbertsio errealean kapituluan erregistratzen direnak. Gero, Diputatuen Kontseiluak ekainaren 22an hartutako 547/99 zenbakiko erabaki bidez 2 milioi gehiagotan handitu zen, hasierako hitzarmenean aurreikusi gabeko gastuei aurre egin ahal izateko, hala nola, aseguru polizaren hedapenaren, prestakuntza ikastaroen eta katalogazioaren gastuei aurre egiteko. Beraz, ACCAri ordaindu beharreko diru kopurua 47,7 milioi pezetakoa da.

Emandako gehienezko dirulaguntzen, diruz lagundutako portzentaien eta justifikatutako gastuen zenbatekoak hauek dira:



ACCArekiko HITZARMENERAKO DIRULAGUNTZAK

KONTZEPTUA	Dirulag. gehien. % (1)	Gehien. dirulagun. (2)	Justifikat. gastua (2)	% aplikaz. (1*2)	Emandako dirulaguntza
Zaintza lekuaren gastuak	70	24,0	44,3	31,0	24,0
Langile tekniko administratiboak.....	80	10,5	13,9	11,1	10,5
Administrazio gastuak	80	2	3,8	3,0	2,0
Erantzukizun zibileko aseguruak	50	3,5	7,8	3,9	3,5
Basa-bizitza kudeatzeko plangintza.....	100	5,7	5,7	5,7	5,7
Hainbat gastutarako gehikuntza		2			2
GUZTIRA		47,7	75,5	54,7	47,7

Aurreko laguntza horiez gain, ACCAk milioi bateko dirulaguntza jaso zuen 36/1999 Foru Dekretuaren bidez araututako deialdi publikoaren bitartez, Arabako ehiza-barrutiak hobetzeko inbertsioei laguntzak ematekoa baitzen.

VI.2 ONDORIOAK

- Basa-bizitza kudeatzeko plangintza prestatzearen ondorioz sortarazitako gastuak hitzarmenean aurreikusitako helburuen artean sartzen dira, eta, horrenbestez, ez lirake dirulaguntza izendun gisa sartu behar.
- Segimendurako Batzorde Parekideen bileretako aktarik ez da egin, eta hitzarmenean jasotako jardueren urteko memoriarik ere ez. Dena de, HKEEk egiaztatu ahal izan du jasotako dirulaguntza justifikatzen duten ordainagiriak badaudela.

Gure iritziz aktak eta urteko memoria egin beharko lirateke, hitzarmenean aurreikusitako helburuak betetzen direla agerian uzteko.



INTRODUCCIÓN

Las Juntas Generales de Álava solicitaron la realización de determinadas fiscalizaciones que, por su concreción, hemos considerado oportuno tratarlas en un único informe “Trabajos especiales a petición de Juntas Generales de Álava”, que ha sido incluido en el plan de trabajo aprobado por el TVCP/HKEE para el período abril 2000-marzo 2001.

Las peticiones analizadas en este informe son las siguientes:

- Análisis de determinados gastos y subvenciones del Instituto Foral de Bienestar Social (en adelante, IFBS) en los apartados de Tercera Edad, Incapacidades y Servicios Sociales para el período 1996-1999.
- Concesión del servicio público de explotación del Centro de Atención a Personas Mayores en Ariznavarra: acuerdo de la contratación y seguimiento de la concesión.
- Subvenciones en materia de regadíos concedidas por la Diputación Foral de Álava (en adelante, DFA) en el período 1997-1999. Acuerdos de Consejo de Diputados relacionados con las subvenciones concedidas a la Comunidad de Regantes de La Rioja y Sonsierra Riojana.
- Subvenciones concedidas al Deportivo Alavés, SAD y a Sasaki-Baskonia, SAD, corrientes y para infraestructura, por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, la DFA y el Gobierno Vasco en el ejercicio 1999.
- Cumplimiento del contrato de cesión de las instalaciones del Parque del Ebro por la DFA al Ayuntamiento de Lantarón y por éste a la Fundación para el Fomento de la Educación Ambiental. Seguimiento del cumplimiento tributario de los beneficiarios de dicha concesión.
- Convenio y subvenciones concedidas por la DFA a la Asociación de Cotos de Caza de Álava en el ejercicio 1999.



I. ANÁLISIS DE DETERMINADOS GASTOS Y SUBVENCIONES DEL INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

I.1 ASPECTOS GENERALES

La petición de fiscalización de las Juntas Generales de Álava se refiere a determinadas partidas presupuestarias relativas a los apartados de Tercera Edad, Incapacidades y Servicios Sociales, todas ellas para los ejercicios 1996 a 1999. La partida “Servicios de residencia pactados” comprende en su mayor parte el incremento de camas de la Residencia Clínica Álava y la partida “Servicios externos del Plan Foral de Acción Positiva” no ha sido incluida por responder a numerosos conceptos que en el conjunto del trabajo son inmateriales. Las partidas analizadas son:

	SITUACIÓN	1999	1996	1997	1998	1999
TERCERA EDAD						
<u>AFADES, Centro de día “Bizia”</u>						
Enfermos de Alzheimer y demencia senil (Millones pts)	CONVENIO(*)		13	23	27	29
Número de usuarios.....			25	25	25-35	35
<u>Residencia Clínica Álava</u>						
Estancias tercera edad (Millones pts)	NEGOCIADO		207	209	218	256
